


Haur Eskolako 2024/2025 ikasturterako matrikulazio-epea

2024/2025 ikasturterako, **2022an, 2023an eta 2024an** jaiotako haurrak matrikulatzeko epea **apirilaren 22tik maiatzaren 3ra** bitarte egongo da zabalik.

Matrikula egiteko aurretik ordua eskatu behar da 943374061 telefono zenbakira deituz edo haureskola@udarregi.eus helbidera idatziz.



Jangela-zerbitzua

Hona hemen maiatzean 3 eta 16 urte bitarteko bazkaldarrei eskainiko zaizkien menuak:

[Menu arrunta](#)

[Intolerantziadun menua](#)



Udako aisialdi-eskaintza

Aurten ere Zirimolak, Ikastolen Elkarteko aisialdi taldeak, prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Euskal Herriko ertz guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera eskaintzen dute.

ikastolan bertan eskaintzen diren udalekuak ez dira antolatu Udarregin.

Izen-ematea maiatzaren 14ra arte dago irekita. [Informazio gehiago...](#)



Udajolas 2024

Aurtengoan ere UDAJOLAS, Usurbilen egiten den udalekuetan izena emateko garaia heldu da. Informazio osoa eta izen-ematea Noaua!ko webgunean eta [lotura honetan](#) egin daiteke.



HAUR HEZKUNTZA

Zirimara familia

0 eta 5 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzenduta, **maiatzaren 14an eta 21ean 16:30etik 17:30era, Zirimara familia**ko ATE IREKIAK egingo dira.




Ekintzan izena emanda ez bazaudete eta bertan parte hartu nahiko bazenute, maiatzaren 3a baino lehen, eman izena [galdetegi hau](#) betez.

LEHEN HEZKUNTZA

LH1 Sarreran puntualtasuna

Mezu honen bidez, eskatu nahi dizuegu, ikastolara sartzera **puntualak** izatea. Goizetan harrera izan arren, oso garrantzitsua da 9:00etarako bertan izatea eta patioko sarreratik sartzea.


Mila esker eta laster arte!!



LH5 eta LH6. Hezkidetza saioak

Datorren astean, LH5 eta LH6ko ikasleek Harremanak elkartearen eskutik HEZKIDETZA, BERDINTASUNA ETA TRATU ONA BULTZATZEKO hainbat saio burutuko dituzte. Saio hauetan, beste batzuen artean, honako gai hauek landuko dituzte:

- NORBERAREN BURUA ETA AUTOESTIMUA
- HARREMAN SOLIDARIOAK ETA ERAIKITZAILEAK
- SEXUEN HEZKUNTZA



Usurbilgo liburutegiko ekintzak

LH3ko eta LH4ko ikasle eta gurasoei zuzendutako saioa

APIRILAREN 30ean, asteartea, 18:00etan, Sutegi Udal Liburutegian, LIBURU AURKEZPEN-TAILERRA antolatu da, Yolanda Arrietaren eskutik; saioa LH3ko eta LH4ko haurrentzat eta euren gurasoentzat (edo erreferentziazko pertsona batentzat) izango da, hau da, haur bakoitzak heldu batekin etorri beharko du. Aipatu bezala, Yolandak **GUTUNAK BIRRAMONARI liburua aurkeztuko digu, eta ondoren "elkarlanean" jarriko ditu haurrak eta gurasoak.**

Izen-ematea, Liburutegian (plaza mugatuak). Iraupena: 60-75 minutu.



LH5eko eta LH6ko ikasleei zuzendutako saioa

Maiatzaren 8an, asteazkena, 18.00etan, Sutegi Udal Liburutegian, SOLASALDIA, Yolanda Arrietaren eskutik: LH5eko eta LH6ko gaztetxoei zuzendutako saioa izango da, eta mintzagai izango dute Mariasun Landaren **GALTZERDI SUIZIDA liburua, jada eskuragarri duguna Liburutegian. Iraupena: 60-75 minutu.**

DBH

Irteerak

❖ DBH 1. Ikasturte amaierako irteera

Datorren astean, **apirilaren 29an eta 30ean** DBH 1eko ikasleekin ikasturte amaierako irteera egingo dugu ARANTZARA.

Horren inguruko informazio guztia ikasleen bidez helarazi da etxeetara.

❖ DBH 2. Ikasturte amaierako irteera

Datorren astean, **apirilaren 29an eta 30ean** DBH 2ko ikasleekin ikasturte amaierako irteera egingo dugu BERTIZ-NARBARTEA.

Horren inguruko informazio guztia ikasleen bidez helarazi da etxeetara.



Irteera-kobrantzak

❖ DBH1

GAUR, apirilak 26, Arditurrira egindako irteeraren kobrantza egingo da. Kostua **9,60 €** da eta honela banatzen da:

- o Autobusa: 6,20 €
- o Arditurrira sarrera: 3,40 €



❖ DBH3

GAUR, apirilak 26, Mutiloara (Nafarroa) egindako irteeraren kobrantza egingo da. Autobusaren kostua **13,00 €** da.

Datorren ostiralean, **maiatzak 3**, Tuterara egingo duten ikasturte bukaerako bidaiaren 2. Zatiaren kobrantza egingo da. Kostua **30 €** izango da.

❖ DBH4A eta B, eskalatzera


DBH4 A eta B gelakoak egindako eskaladako ikastaroagatik, **GAUR, apirilak 26**, kobrantza egingo da. Kostua **10 €** da eta honela banatzen da:

- o Gipuzkoako Mendi Federazioak eskainitako ikastaroa: 5 €
- o Rokodromora sarrera (eguraldi txarragatik): 5 €

DBH4D taldeak ezingo duenez ikastaro hau egin, ez zaio ezer kobratuko.

Zientzia azoka

Maiatzaren 4ean, larunbata, Usurbilen ospatuko den Zientzia azokan Udarregi Ikastolako DBH-ko ikasleek ere parte hartuko dute.



Sutegi liburutegitik egindako proposamenak

- **Sutegi Liburutegian** gazte(txo)ekin **IRAKURKETA-SOLASALDIA** antolatu nahi da, taldetxoa osatuko balitz; hau da, parte hartu nahi lukeen orok liburu berdina irakurriko luke eta ondoren hitzartutako egun batean elkarrekin irakurketa hori partekatu, **Yolanda Arrietaren** laguntzaz. Gai horrekiko interesa duena, **Sutegi Liburutegira** bertaratu dadila, eta informazio zabalagoa eskainiko zaio.
- **Sutegi Liburutegian SOLASALDI bat** prestatu nahi da **DBHko ikasleekin**; mintzagai izango den liburua, Liburutegian eskuratu ahal izango dena, **Irati Goikotxearen NOR** izango da, eta solasaldian zehar **Yolanda Arrieta izango da bidelagun**. Aipatu solasaldirako, gazteekin beraiekin adostu nahi dira eguna eta ordua; beraz, solasaldian parte hartu nahi duena, azaldu dadila **Sutegi Liburutegira**, eta bertan emango zaio argibide gehiago.



